

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako haran ezberdinetara bisitak eta izokinen eta basafaunaren zaintza ezagutzeko jarduerak Ingurumenaren agendan

*Horrez gain, Iratiko basoan barrena ibilbideak edo Pitillasko Aintzirara txangoak antolatu dira*

Ostirala, 2018.eko azaroak 2

Ingurumenak [jarduera ezberdinak](#) antolatu ditu Nafarroako haran ezberdinak ez ezik, izokinak zaintzeko prozesua edo basafaunaren berreskuratze-lanak ere ezagutzeko, azarorako prestatutako agendan.

Azaroko larunbat guztietan [Erronkariko Naturaren Interpretazio Zentrorako](#) bisita gidatuak egingo dira. Bisitak 11:00etan, 13:00ean eta 17:00etan hasiko dira zentrotik bertatik.

Azaroaren 3an, larunbatean, "[Faunaren aztarnen atzetik](#)" bisita egingo da Artikomendian, Belabarzeko ibarrean. 10:00etan abiatuko dira Otsindunduako zubiko parkingetik.

Azaroaren 4an eta 11n (igandeak), [Pitillasko Aintzirara eta Hegazkien Behatokira](#) bisita gidatuak egingo dira; 12:00etan abiatuko dira Behatokitik.

Azaroaren 7an, asteazkenean, berriz, nahi dutenek [Iratiko Basora](#) joateko aukera izango dute, 'Nafarroako ezinbesteko 30 bidexkatariko' bat egiteko. Hain zuzen ere, Errekaidorra bidea da, eta, bertan, Iratiko basoaren ezaugarriak ezagutzeaz gain, Kuboaren ur-jauzia bisitatu ahal izango da, basoak izan dituen erabilera tradizional ezberdinak ezagutzearekin batera. Ibilbidea 10 km ingurukoa da, eta 3 bat orduetan egin daiteke. Parte hartzeko izena eman behar da.

Oronoz Mugairiko arrain-haztegirako bisitak egingo dira azaroaren 10ean eta 17an; era horretan, Nafarroako ibaietan arrain-hazkuntzaren fauna kontserbatzeko lanen berri emango da, zehazki, izokinak zaintzeko prozesua azalduko da. Jarduera goizez egingo da, eta beharrezkoa da [aurrez izena ematea](#).

Azaroaren 24an, larunbatean, haurrentzako jolasak, dinamikak eta aisialdi libreko jarduerak antolatu ditu Ingurumenak, haurrak ingurune naturalera gerturatzeko asmoarekin. Jarduera [Erronkariko Zentroan](#) burutuko da, 17:30etik 19:00etara.

Azaroaren 25ean, igandean, interesatu guztiek basafaunaren Nafarroako ospitalea ezagutu ahal izango dute, Basafaunaren Ilundaingo Berreskuratze Zentroan egiten duten lana ikusiaz. Hitzordua 11:30ean izango da, eta parte hartzeko ezinbestekoa da [izena ematea](#).

Gainera, hilabete osoan zehar, "Natura koloretan" erakusketa

bisitatu ahal izango da [Arroilen](#) Interpretazio Zentroan. Naturaren Argazkilarien Madrilgo Elkartearen (FONAMAD) erakusketan, bat-bateko 30 argazkiren bidez, naturako koloretako espektro osoan zehar ibilbide bat proposatzen da.